

Belarriaren gozamenerako

Josu Zabaleta itzultzailearen “Belarria da gramatika” esaldia Ibon Sarasolak jasotzen du *Bitakora kaiera* liburuaren hasieran, ondorengo tesiaren iragarle: “Belarria gidari harturik idazten duten egungo autore onak irakurriz lortuko du idazle batek idazle on izatea, hots, idazle onaren belarria izatea. Eta egungo euskararen benetako gramatika izango da idazle on horiei darien *gramatika* biltzen duena”. Euskaltzaindia utzi duen hiztegegilearen aburuz, belarri oneko idazle horiek osatzen dute euskararen akademia. Hildakoen artean Koldo Mitxelena (gorra zen) aipatzen du; oraingoetan, berriz, Anjel Lertxundi, Bernardo Atxaga eta Iñaki Segurola, besteak beste.

Hiruretako batek –asteasuarrak– obra baten balioa nabarmendu berri du, belarri oneko idazle bihurtzeko lagungarri izan daitekeelakoan: Hauspoak euskara batuan argitaratu duen *Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua*. Txukun idazten ikasteko hori bezalako lezio gutxi haren ustez. Azken egunetan, H-rik gabeko Auspoaren obran murgilaldi batzuk eginak ditut Interneten, Antonio Zabalak argitaraturiko liburu guztiak sarean eskura ditugula aprobeztatuz. Eta askotan gogoratu dut Atxagak esanikoa. Izan



Fermin Erbiti

KAZETARIA

Dena esana badago ere, garrantzitsuena falta da: kantuari eman beharreko grazia, kolorea, sentimendua, dirdira, arima. Eta hori non ikasten da, hori nork erakuts dezake?

ere, handik eta hemendik pasarte batzuk hartzea, tolosarraren aurkezpenak barne, haize freskoa da irakurlearentzat. Ez dakit hortik idazleak etekinik aterako duen; irakurleak bai, dudarik gabe, irakurlearen belarriak batez ere. Aukeran beste paraje batzuk nahiago

dituena ere, gozo eta eroso ibiliko da istorio horietan.

Belarriaz ari garenez, musika aipa genezake eta literaturarekin alderatu. Partitura dugu musikaren gramatika, bete beharreko arau guzti-guztiak aletzen baititu: tonua, noten iraupena, isiluneak, komak, errepikapenak... Dena esana badago ere, garrantzitsuena falta da: kantuari eman beharreko grazia, kolorea, sentimendua, dirdira, arima. Eta hori non ikasten da, hori nork erakuts dezake? Gure horuko zuzendariak galdera erretoriko horietan egin ohi ditu, etsiturik, Mozart edo Bachen melodia zoragarria kantu zakar bihurtzen dugularik.

Artikuluaren amaierara heldu eta YouTube sartu naiz, Pachelbel-en *Kanona* entzuteko, lerro hauek boro-biltzeko lagungarri izan zitekeelakoan. Zenbaterainoko lana dago horren atzean? Pare bat ordukoa edo urtetakoa? Ideiarik ere ez. Kontua da oraintze entzuten ari naizen nota simple eta sarkor horiek barnea inarosten digutela, hunkitu egiten gaituztela.

Artea esaten zaio horri. Hori lortzeko grazia nola eskuratzen den esaten zaila da. Zorionez, eta hori da garrantzitsuena, guztion eskura dago. Literaturan eta musikan. Klik bakar batera, askotan. ■

MOYUA
HILETA ZERBITZUAK
Zure momentu
zailtarako

Tel.: 943783447 - 617442466
mmoyua@telefonica.net
Otañui Gotzaina kalea, 27 - Oñati

tradEBI

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

tradEBI@tradEBI.com

LUAarkitektoak

hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
etxebizitza proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Río Arga Kalea 28, 31014 Iruña
Tel 948 13 26 97
lua@luark.com